



Elkarrenganako
errespetuaren
alde **por un**
respeto
compartido



OSASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SANIDAD



Osakidetza

ADIERAZPENA, OSAKIDETZAKO ZUZENDARITZAREN ETA SATSE, SME ETA CCOO SINDIKATUENA, OSAKIDETZAKO LANGILEEK LANAGATIK JASANDAKO ERASOEN AURKA

Pazienteen eta profesionalen arteko konfiantza-giroak eta profesionalak segurtasunez jarduteko beharrak baldintzatzen dute osasun-sistema publikoren bitartez herritarrek erabiltzen duten zerbitzu asistentzialaren kalitatea. Bestalde, Osakidetza langileak babestu behar dira beren funtzioak betetzean jasan ditzaketen erasoetatik. Hori guztia eta Osakidetza langileen lan-baldintzak arautzen dituen akordioan jasotzen dena kontuan hartuta, Osakidetza Zuzendaritzak eta SATSE, SME eta CCOO sindikatuek elkarrekin eta seriotasun osoz **printzipioen Adierazpen** hau egiten dugu.

Lehenengoa: Herritarren asistentzia sanitarioaren izaerak, funtsezkoa eta oinarrizkoa izanik, **guztiok konprometitzen gaitu**, alegia, botere publikoak, profesionalak eta herritarrak, zerbitzu hori ahalik eta baldintza onenetan emateko behar den esfortzua egitera.

Hori horrela izan dadin, guztiok izan behar dugu osasun-sistema publikoaren gaineko **erantzukizuna**. Irizpide hori, besteak bete, instalazioak eta zerbitzuak behar bezala erabiltzean eta **profesionalei eta gainerako erabiltzaileei zor zaien besteko errespetuan** hezurmamitzen da. Hartara, herritarrek zerbitzua arduraz erabili behar dute, eta eskubidearen erabilera gehiegizkoa edo antisoziala ebitatu.

Bigarrena: Herritar guztien berdintasuna da gure araua, bai Osakidetza zerbitzu sanitarioez baliatzerakoan, bai osasun-sistema publikoak herritarrei emandako tratuan. Uste dugu





beharrezkoa dela Osakidetzako erabiltzaileen eta profesionalen arteko **komunikazioa bultzatzea, elkarrenganako errespetua** sustatuz eta aniztasun kulturala eta soziala onartuz.

Hirugarrena: Pertsonen duintasuna eta lantokian profesionalei eta erabiltzeei maila guztietan zor zaien errespetua, asistentzia sanitarioaren funtsezko ezaugarriak dira, eta zentzu honetan **ezin dira inolaz ere onartu** erabiltzaileek edo haien senideek **Osakidetzako profesionalen aurka indarkeriaz jokatzea.**

Laugarrena: Indarkeria, hainbat modutan ager daiteke lantokian. Batzuetan errazago identifikatzen da besteetan baino, baina, edonola ere, erasoak jasan duen profesionalaren duintasunari mindu, haren osasun fisikoari edo psikikoari kalte egin eta, hainbatetan, lantokia etsaitzat hartzera darama langilea. Laneko indarkeriaren aurrean, **langileen babes eta laguntza osoak bere gain hartuko ditu Osakidetzak**, babes hori eta aholkularitza bermatuz eta laneko segurtasunaren eta prebentzioaren kultura sustatuz.

Bosgarrena: Osakidetzak, lantokiko indarkeriari buruzko kezka langileekin eta Adierazpen hau izenpetzen duten sindikatuekin partekatzen duenez, **protokoloa** egin du arazo honen inguruan jarduteko. Protokoloak erasoak jasaten duten langileak babesten ditu, hala **lan-osasunaren eremuan nola psikologiaren eta laguntza legalaren arloetan**. Horrela, protokoloak, langileei babesa, gertutasuna, segurtasuna emanez, berriro lantokira itzultzea errazten dio erasotako langileari, segurtasuna eta duintasuna bermatzen baitizkio.

Era berean, Osakidetzako profesionalei erasotzea zeharka Euskal osasun zerbitzuari berari erasotzea denez, honek, erasotzailearen kontrako jardueraz gain, ohiko justiziaren aurrean kasu horiek salatzen lagunduko du.

h

Ameritz SATSE

2017/05/02

Alfonso



Seigarrena: Erasoa lantokian eta laneko funtzioak betetzean gertatzen denez, Prebentzio Zerbitzuak **lan-istriputzat** joko du, eta laneko gertakari horrek duen tratamendu eta balorazio bera izango du, eta prebentzio-neurriak eta zuzentzaileak proposatuko ditu erasoa eragin zuten arrazoiak zuzentzeko eta berriz errepika ez daitezen ekiditeko.

Halaber, Osakidetzak konpromisoa hartzen du, Prebentzio Zerbitzuaren bidez, **erasoa gertatzeko arrisku handiagoa duten arlo kritikoak zein diren aztertzeko**, horrela zehaztuta egongo baitira Osakidetzako langileek erasoak zein eremu eta kategoria profesionaletan errazago jasan ditzaketen, baita eraso motak ere.

Zazpigarrena: Era berean, beharrezkoa ikusten dugu **prestakuntza jakin bat bultzatzea**, Osakidetzako langileek arrisku-egoerak ezagutu, prebenitu eta aurre egiteko gaitasuna izan dezaten.

Zortzigarrena: **Kontzientziazio- eta sentsibilizazio-kanpainak** antolatuko dira, Osakidetzako langileen lanarekiko errespetua herritarren artean bultzatzeko eta profesionalen eta erabiltzaileen arteko konfiantza-giroa sortzeko.

Bederatzigarrena: Osakidetzak eta Adierazpen hau izenpetzen duten sindikatuek erabat beharrezkotzat jotzen dute **izaera paritarioko foroak sortzea**, Osakidetzako Zuzendaritzak eta langileen ordezkariak arazo honen inguruan gogoeta egin dezaten eta erasoen jarraipena eta tratamendu egokia bermatuko duten prozedurak zehaztu, eta laneko ohiko prozeduretan prebentzioaren integrazioa ahalbidetuko duten konponbide jakinak eman daitezen.

Ido horretatik, **Osakidetzako erasoei buruzko behatokia** sortuko da. Behatokian Adierazpen hau izenpetzen duten sindikatuek parte



hartuko dute, eta Osakidetzan lanean jasaten den indarkeria aztertuko da bertan. Behatokiak, bere egitekoetatik bat betez, egoeraren berri ematen duen txostena urtero aurkeztuko dio Osakidetzaren Zuzendaritzari, non jasoko baitira arazoari buruzko datu eta informazio nabarmenenak.

Hori guztia esanda, Osakidetzak eta SATSE, SME eta CCOO sindikatuek, Adierazpenari bere babesa ematen diote, baita etorkizunean berau garatzeko hartuko diren neurriak hartzeari ere, eta Adierazpena izenpetzen dute Vitoria-Gasteizen, bi mila eta zortziko azaroaren hamazortzian.

Ameritz
SATSE

Adierazpenari
SME

Rikar Arle
CCOO

10.11.11